

Donostian, 2017ko abenduaren 15ean

IDAZKARITZA NAGUSIARI

ARTE EDERRAK ERAINERAKO AUKEREI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Loïc Alejandrok, Irabazi Donostia taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, hil honetan LURRALDEAREN GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEAN Arte Ederrak eraikinaren gainean egindako interpelazioaren harira.

JUSTIFIKAZIOA

Azaroaren azken egunetan, zenbait komunikabideren bidez jakin genuen Donostiako Udalaren eta Arte Ederrak eraikinaren jabearen arteko negoziazioak bertan behera gelditu zirela.

Udal Gobernuak jakinarazi duenez, SADERekin negoziatzen ez jarraitzea erabaki da, akordio horrek berekin ekarriko lukeelako Hiria Antolatze Plan Orokorra aldatzea eta PSEk, EAJrekin batera gobernu partekatzen duen alderdiak, aldaketa hori baztertu duelako.

Udalak babestutako eraikin bat da, duela gutxi arte Eusko Jaurlaritzak babesten zuena. Era berean, ugariak dira azken urteetan eraikina babestearen alde agertu diren herritarren mugimenduak. Horrek esan nahi du herritarrentzat eta erakundeentzat Arte Ederrak eraikinak balio historiko, arkitektoniko eta sinboliko handia duela.

Dena den, eraikinaren jabeak ez du ikuspegi hori, eta eraikina abandonatuta utzi du hainbat urtez. Enpresa den aldetik, jabeak bere ondasunari etekina atera besterik ez du nahi.

Erronka, beraz, jabearen interes pribatuak eta interes publikoa uztartzea da. Esparru horretan, negoziazioak egin dira, premisatzat hartuta eraikinaren titulartasuna ez zela aldatuko. Negoziazio horiek porrot egin dute. Aldi berean, auziaren ibilbide judizialak gauden egoeran utzi gaitu: Arte Ederrak eraikina abandonatuta egon da duela hiru hamarkadaz geroztik gutxienez.

Gure ustez, premisak berriz aztertzeke garaia da, berriro negoziatzen hasteko eta, zehazki, titulartasuna aldatzea dakarten aukerei atea zabaltzeko.

Aztertzen den modalitatearen arabera titulartasuna aldatzeak ziur asko gastu publiko handia ekarriko luke berekin. Baina alde bakoitzak (jabe eta erakunde), udal talde bakoitzak eta herritar kolektibo bakoitzak «titulartasuna aldatzeak berekin ekarriko duen gastu publikoaren» eta «balio handiko eraikin baten kontserbazioaren» arteko balantzea egin dezan, lehenbizi zenbat diruz ari garen jakin behar dugu.

Udal Gobernuak beti baztertu du trukearen aukera aztertzea, ebaluatzea eta zenbatestea, arrazoi hauek oinarri hartuta:

1. Trukea eginez gero, eraikin bat erostearen pareko litzateke. Baina diruz ordaindu beharrean, beste eraikin batekin ordainduko litzateke.
2. Administrazioak ez du behar ekipamendu publiko gehiagorik.

Batetik, Udal Gobernuak oso kontzeptu desberdinak parekatzen ditu. Nork bere aurrezkiekin zerbait erosten badu, bere ondasunak handitzen ditu. Baina trukatzuz gero, ez du ondasuna handitzen: zerbait galtzen du, beste zerbait lortzeko. Eragiketa hori neutroa da, trukatzuz diren gauzen balioa parekatzeko diru doikuntza salbu. Trukatzea eta erostea ez da gauza bera, ez eta kontabilitatearen aldetik ere.

Bestetik, Arte Ederrak eraikinaz mintzo garenean, Udalak dio ez dela ekipamendu gehiagorik behar. Bainuetxea auzorako baliatzeaz mintzo garenean, ordea, zer gertatuko eta Udalinfo hantxe dagoela, udal sailetarako lekua falta delako. Ez da koherentea.

Udal Gobernuak trukearen aukera aztertu gabe ere baztertzeko ematen dituen argudioek ez dute funtsik.

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio:
 - jabearekin, eta beste erakunde batzuekin, beharrezkoa izanez gero, trukearen aukera aztertzeko.
 - aipatutako aukera bakoitzak berekin zer gastu publiko (unean unekoa eta urtekoa) ekarriko lukeen zenbatesteko.
 - datuak herritarrei aurkezteko.

Sin.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia.